

Letra gozoak, Letra ariñak eta *Itukiñak*. Hurrengo alean *Jakingarriak* izeneko atala gehituko jako.

Gora-behera haundiak dagoz arazo honen inguruan, ze sail batzuk ageri eta bat-batean galdu egiten dira, osterara bere agertzeko, hala jazoten da, berbarako, liburuen gaia jorratzen dauan atalagaz. Beste batzuk, barriz, gai zehatz bati lotzen jakoz, eta ez dabe jarraipenik aurrerantzean, horrela jazo zan, esaterako, *Ama Teresa Deunaren* atalagaz 1982. urteko 2/3/4. ale hirukunean, *Gabonak artean* atalagaz 1988ko 4. alean eta *Ohorez* atalagaz 1979. urteko 3. alean.

Editorialak aitamen berezia merezi daualakoan nago. Aurrengoz, 1975. urteko 4. alean ageri zan, baina ez zan arauz agertuko, harik eta 1977. urteko 1. zenbakiraino. Eta arauz agertzen segituko dau 1990. urteko 2. zenbakira heldu arte. Ale horretatik atzera ez da beste editorialik ageriko, 1992. urteko 3. alekoa izan ezik. *Editorial-gisa* izenagaz 1990. urteko 1. zenbakian eta 1991ko hirugarrenean ageri jakuz.

1984-1994. urteetan hartuko dabez "KARMEL"en sailak gaur egun daukiezan izenak, bai eta egiturea bere. Holan daukie euren izena 1984. urtetik hona: *Editoriala, Kultura, Gizartea, Eliza, Eretxiak, Kontu Kontari* eta *Letra gozoak*.

Honeek dira "KARMEL"en historian ageri diran sailen izenak (ez dira, baina, sartuko 1990. urteko 3/4. ale bikunean agertutakoak): *Alfer-Aldirako Euskal kondaira bidean; Ama Teresa Deuna; Ataria; Bein batean Larrea'n; Beti ere... ikasten; Bizkaitik A. Onaindia; Denbora pasa; Editorial gisa; Editoriala; Ego-Ifar aldetik (edo Ego-ipar aldetik: Euskal lurraldetan galdetzka); Eleiza (beste izen batzuk be hartu dauz: *Eliza; Eliza, 78-Euzkadi-78; Eliza-1978; Eliza-1978 Euzkadi-1978; Eliza-1979; Eliza-1980; Eliza-77*); *Eretxiak* (beste izen batzuk bere daukaz: *Eritxiak* eta *Iritziak*); *Erri kontzientziazten; Euskal-kontzientziazten; Euskal Herria; Euskal Herriari eta honen kulturari begira; Euskara (Euskara, oi euskara, euskara, oi euskara, euskara, oi euskara)*; *Euzkadi; (Euzkadi-1978 Eliza-**